



Bizkaitarrei
Bizkaieraz



www.euskerazaleak.biz • info.euskerazaleak@gmail.com



Agustin
Kardaberaz

Euskerazaleak Alkartearen urteko batzar nagusia



Euskalerrian euskeraz EUSKERA ZALEAK

2017-2018 IKASTURTEA

**BIZKAIERAZ 50. IKASTAROA
IRU MAILLA**

Egunak: astelen eta eguasten
edo astearte eta eguenetan

Orduak: Goiz eta arratsalde

Ordaña: 150 €

Izena emoteko tokia: Euskerazaleak

Colón de Larreategi, 14-2
urrutizkiña 94 423 53 22
Bilbao 48001

Asiera: urriaren 9an

**50. CURSO DE EUSKERA BIZKAINO
3 NIVELES**

Días: lunes y miércoles
o martes y jueves

Horas: Mañana y tarde

Curso completo: 150 €

Inscripciones: Euskerazaleak

Colón de Larreategi, 14-2
Teléfono 94 423 53 22
Bilbao 48001

Comienzo: 9 de octubre

ZER ALDIZKARIA

Ordaindu, mesedez, ZER aldizkaria! (ogeitamabost euro) kontu onetan:

**EUSKERA ZALEAK
BILBAO BIZKAIA KUTXA
ES28 2095 0000 74 2000089615**

Adiskide! Mesedez ZER aldizkaria aurrera eroaten lagundu eiguazu!

Ebagi orri onetan txarteltxu au, eroan BBKra eta ordaindu 35 €.

Ez dozu ezer be idatzi bear.

Baiña, aztu barik, esan Kutxan zeure izena eta zeure errikoa.

Eskerrik asko!

Euskerazaleak

ASOCIACIÓN PARA EL FOMENTO DEL EUSKERA

Colón de Larreategi, 14 - 2.º dcha.

48001 BILBAO

Urrutizkina : 944 235 322

info.euskerazaleak@gmail.com

Laguntzaille




ISSN: 1132 - 1350

Lege gordailua: BI-1452-85

EUSKERAZALEAK ALKARTEAREN URTEKO BATZAR NAGUSIA

Bilbaon 2.018n Epaillaren 22an



Bi milla eta amazortzigarren urtean Epaillaren 22ean arratsaldeko zazpirak zirala, Euskerazaleak Alkartearen Zuzendari Batzordeak, aurretiaz deia eginda, Batzar Nagusia egin eban.

Bilbaon, Kolon de Larreategiren kaleko 14n zenbakian, 2gn solairuan dagon Euskerazaleak Alkartearen giza-etxean batzartu ziran.

Batzar onetara, aitatzen diran batzarkideak batu ziran:

- Alonso´tar Margarita.
- Arrieta´tar Koldobike.
- Arrieta´tar Itziar.
- Fernandez´tar Karmele.
- Egurrola´tar Iñaki.
- Barroeta´tar Klaudio.
- Atutxa´tar Paul.

AURKEZPENA:

Leenengo, batzarrari asiera emoteko, Barroeta tar Klaudio Euskerazaleen alkarteko lendakariak batzarraren antolakuntza zelango baldintzatan egingo genduan adierazi euskun.

Ondoren, zutunik abestu euskun emen agertzen dan bertsoa :

BATZAR NAGUSIA

ASIERAN:

**Pozaren pozez bilduta gagoz
gure lanak aztertzeke,
ondo ala txarto dagozanak
zuzenez epaitutzeke.
Alegindu gara, gogo biziiaz,
benetan jokautzeke,
mereziduna, txalo artean ,
atsegiñez saritzeke.**

1´go .- IDAZKARIA :

Atutxa idazkariak, aurreko Batzar-Nagusiaren 2017ko agiria irakurri eban eta ontzat artu zan.

2´gn .- 2.017eko DIRU KONTUA:

Karmele arduradunak auxe esan euskun:

Aurten be, betiko moduan etxeko kontuak emongo dautsuedaz.

Aurten, igaz emon euskuen antzera be, dirua emoten ba dauskue, egutegia, ikasturtea, ipuin sariketa, web orria, euskal astea ta beste ekintza batzuk egingo dira.

Ekintza orreik egiteko, guk betiko lez %´eko diru kopurutik 40´a ipiñi bear dogu.

Eskerrak emon, Aldundiari eta Udalarri.

Eta beste barik datorren urterarte.

Fernández tar Karmele (diruzaiña)

Eta Karmelek aurkeztu ebazan kontu oneik, ontzat artu ziran.

3'gn.- URTEKO EKINTZAREN AZALPENA:

Eta datorren urrengo arlo onen azalpena, Barroetatar Klaudiok adierazi eban lendar-kari lez.

EUSKERAZALEAK ALKARTEAREN 2.017. URTEKO EKINTZAK

Adiskideok:

Urte guztietan lez, Batzar-Nagusi onetan, urte barruan egin doguzan lanen barria emoten dogu.

ILLEROKO BATZARRAK eta URTEROKOA:

Utsik egin barik bete dogu illeroko batzarra eta urterokoa, Atutxatar Paulok gure bazkide eta idazkariaren BATZAR AGIRIETAN ikusi daiteken lez.

IPUIN-SARIKETA:

Urte guztietan lez eginda, oneik izan dira aurtengo sarituak:

1'go SARIA: Etxebarria'tar Juan Manuel.

2'gn SARIA: Arrien'tar Ziortza.

3'gn SARIA: Merino'tar Palmi

4'gn SARIA: Legarreta'tar Asier

5'gn SARIA: Leniz tar 'Arantza

EUSKAL ASTEA:

Euskeraren Astea be ospatu genduan Zemendiaren 20'eko. egunetik 24eko egunerarte:

20.- Etxebarria'tar Juan Manuel.

21.- Barroeta'tar Klaudio

22.- Larrea'tar Anjel.

23.- Uranga'tar Erika

24.- Atutxa'tar Paul.

TAKOA BIZKAIERAZ

Betiko lez takoa argitaratu dogu, Bizkaiko Foru Aldundiaren diru laguntzarekin.

Diru laguntza eukiten badogu, jarraituko dogu Takoa argitaratzen, baña ori murrizten badauzkue ez da erreza izango guk bakarrik argitaratzea.



Aurten ez dakigu zer gertatuko dan; orregaitik, Uztaillarte ez dogu ezer jakingo.

Guk, orritxuaren atzean agertzen dan textoa idazten dogu.

Konturatuko zarie baiña, urtero desbardiña dala, eta 365 zatitxu orreik idaztea lan aztuna dala, ez-bardiñak izatea gura ezkeroz.

Betiko lez, Takoa Durangoko Azokan, arrakasta aundia izan eban.

Jendea oitu da an eskatzen eta zuzen joaten dira Gerediaga Elkarteko tokira gure takoa eskatzera, baita Elkar eta Labayru´gana be.

Gainera “Takoa bizkaieraz” eskatzen dabe.

Beste leku batzuetan be banatzen dogu: eskoletan, ikastoletan, parroki batzuetan (Iurreta, Gorozika, Zornotza, Ondarroa, Mungia, Bakio Bermeo e.a.) eta mugako errietan Aretxabaleta, Bergara, Aramaio, Motriku. Gasteiz, e.a.

EUSKERAZALEAK INTERNET´EN

Gure web orria ortxe jarraitzen dau, eta orain arte 1.400.000 ikusletik gora euki doguz. Astobiza´tar Jokin´eri ezker.

Eskatzen daben argibide barriagaitik, badakigu geiena, Unibertsitatetik eta orrelako lekuetatik datozela ainbeste ikusle. (Deustu eta Errioxako goi-ikastetxeetatik, baita Madrilleko eta Errioxako goi-ikastetxeetatik be)

Barruen daukazan argibide barriak obetzen saiatzen gara, naiz eta batzuetan antzekoak dirala uste izan.

Prest gagoz beste lan batzuk jartzeko baiña “baimenak” bear doguz eta ez da erreza ori lortzea.

Baten batek or ipintzeko zeozer baleuko, prest gagoz artzeko.

Ez dauka zetan bizkaieraz izan bearrik, “erriko euskerea” izanez gero.



IRAKASKINTZA:

Urte guztietan lez, jarraitu dogu asieratik Alkarte onen elburua izan dan Euskera irakastea.

Ikasleak aspaldian ez dira gitxiagotu eta ez ugaritu be. Irakasle betikoak zintzo jarraitzen dabe.

“ZER” ALDIZKARIA:

Gure “ZER” aldizkaria illero agertu da eta asko poztuten gaitu lan onek, bizkaieraz argitaratzen dan aldizkari bakarra dalako.

Txaloak, irarkolako arduradunai, ZER aldizkaria edertu egin dabelako.

ZER aldizkarian agertzen diran:

- Euskalerriko edestia.
- Kolon IVn Karlos semearen jaio ta bizitza.

Biografietan:

- Arana ta Goiri´tar Sabinorena.
- Humbolt.
- Agirre´tar Txomin.
- Zelaya ta Ibarra´tar Adrian.
- Zubikarai´tar Augustin.
- Mañarikuua´tar andres.
- Zipitria´tar Elvira.
- Arzelus´tar Amale, eta abar luze bat.

Jendekuntz arloetan:

- Gandiaga´tar Bitorianeren olerkiak.
- Bizkai Irradia.
- Garmendia´tar Txominen bertsoak.
- Abesti oiak.
- Utsak (euskaldun barrientzat).
- Margoak, argazkiak, irudiak





Argitaratzeko ez daukagu arazo aundirik, eta errietan ezin dogu diruaren ordainik artu, gitxik ordaintzen dauelako BBK'ko gure aurrezki gutunean.

Eskerrak Foru-Aldundiari, bere laguntza-gaitik.

Alan da be, aurrera egiteko asmotan gagoz. Eta zuk be, euskera bizia, errikoa, maite dozunez, lagundu zeinke era onetara:

- Bazkide barrien izena emonaz.
- ZER aldizkarian atarateko lanak bialduz.
- Ekonomi arloan eskua luzatuz.
- eta diru biltzaleak aurkeztuz.

ZUZENDARITZAREN EGOKITASUNA:

LENDAKARIA.– Barroeta ta Amorrortu´tar Klaudio.

LENDAKARI ORDEA.– Egurrola ta Madariaga´tar Iñaki.

IDAZKARIA.– Atutxa eta Agirre´tar Paul.

DIRUZAIÑA.– Fernandez eta Ruiz de Eskide´tar Karmele.


MAIKOA.– Arrieta ta Goya´tar Begoñe.

MAIKOA.– Arrieta ta Goya´tar Koldobike.

MAIKOA.– Astobiza ta Uriarte´tar Jokin.

MAIKOA.– Arrieta ta Goya´tar Itziar.





Ontzat artu ziran batzarkide guztien aldetik, eta eten barik jarraituko dabe aurrerantzean.

Amaitzeko, eskerrak emon bear dautsoguz Bizkaiko Foru Aldundiari ta Bilboko Udaletxeari.

Ez gitxiago idazleai, irakurle eta lankide guztiai. Bai ta eskerrak be irakasle eta ikasleei, zintzoak izategaitik.

Ekintza guzti oneik, ontzat artzen dira.

GALDE-ERANTZUNAK:

Aurten gogoratu egin bear izan doguz Matauko Biana Juan Daniel, Enrike Rebillá, Miren Alonso, Bitori Agirre gure maikide eta bazkide izanekoak.

Ez ziran egon galde-erantzunik, poz aldiko solasketa baten amaitu gendulako batzarra.

AMAIERA:

Klaudio lendakariak, batzarrari amaiera emoteko zutundu zan, eta bertso eder au eskeiñi euskun:



Amaiera

**Amaitu dogu gaurko batzarra,
pozik entzunez barriak,
adoretsu aurrerantzean be
dagiguzan alegiñak:
etxebarruan eta kalean
kenduta bildur guztiak,
euskeraz egin daigun beti
garalako euskaldunak.**

Beste barik eta gaueko zortzirak zirala,
batzarra amaitutzat emon genduan.

Klaudio
Barroeta Amorrortu
LENDAKARIA

Paulo
Atutxa Agirre
IDAZKARIA

Meatzaldeko kontaketa

Palmi Merino (Amama)

EUSKERAZALEAK ALKARTEA. BILBAO.

2017ko sari leiaketa. irugarren saria

Erriko jaia zan. Lucia eta bere aizteak urduriak egozan, gero eta urdu-riagoak. Naiz eta auzo txikia izan, euren jaia, Magdalenarena, oso ospetsua zan. Inguruko erri askotatik familiak, gazteria eta adin guztietako jendea etortzen zan beti, batzuk oñez eta geienak funikularraren bidez.

Luciaren familia bost neba-arrebek osatzen eben, bi mutil eta iru neska. Lucia eurretaniko gazteena amasei urteko neska zan. Euren gurasoak il ostein meatzaldeko erri aretara beste bizi-modu baten bila eldu ziran. Nebeak meatzetan meatzari lanetan eta aizteak, minerala garbitzen lan egiten eben. Lan gogor-gogorra benetan baina danon soldatari esker, bizileku bat alokatzea lortu eben. Ori denboraldi aretan garaipen aundia zan eta Luciari etxeko lanetan arduraduna izenpetu eutsoen. Bere lana be ez zan ezertarako makala; Goizean-goiz jagi, gosariak prestatu, etxeko lanak egin, erosketak, bazkaria... beti lanpetuta.

Orrexegaitik berarentzat, Magdalenaren jaiegun a oso berezia zan, meatzetan ere ez zan lanik egiten eta aizteen laguntzaz Luciak jaietarako soineko barri bat amaitzea lortu eban. Poz-pozik egoan Lucia, aizteak ogitartekoak egin ostein jantzitu eta danok batera Galdamesko kobarantz amabietako meza entzutera abiatu ziran. An, meza entzun ta gero akordeoi, txistu eta panderoren soinuaz dantzak eta abestiak asi ziran arratsaldeko bostak arte. Gero danok eskutik lotuta urteroko oitura jarraituz musikaz lagundurik soka-antzeko jatziera erri-ñaño eltzen ziran an erromeriaz jarraitzeko gabeko ordu luzeak emoten.

Egun berezia zan Luciarentzat, berezia benetan. Goizean, koban mezea entzutetik urtetzean eta erromeriarantz joianean andik ugari ziran arri bategaz topo egin eta urbil egoan mutil baten besoei esker ez zan lurrera jausi. Neskea, lotsaz gorriturik eskerraz emon eutsozan eta mutillak irribarrez zeozer edatera gonbidatu eutson.

Une aretatik eguna amaitu arte ez ziran banandu. Biok, euren taldetatik aldentzeko aitzakiak emon eutsezan eta dantzan, abesten eta irribarrez emon eben jaia.

Andik aurrera bereizezinak egin ziran. Xanti, ori zan mutillaren izena, gazte lirain, begiko eta galanta zan. Al-



boko erri batekoa zan eta meatzetan meatzari lana egiten eban. Luciari lan a ez jako larregi gustatzen, ondo ekian berak lan orren gogortasuna eta arriskua baña ez egoan beste lanik eta beraz konformatu egin bear.

Senar-emaztegaiak izateko sendiaren baimena lortu ebenean ezkontzeko asmoak egiten asi ziran. Luciak trebetasunaz ezkontza-arnesa josten asi zan eta Xantik lanean diru apur bat geiago lortu guraz, aparteko orduak egiten ebazan meatzean.

Naiz eta beti lanpetuta egon alkartzeko aisialdixoren bat beti aurkitzen eben.

Luciaren neba-aizteak atsegiñez ikusten ebezan euren arremanak. Euretariko gazteena izan arren ezkontzeko lenengoa izango zan eta danok laguntzeko prest egozan.


Urteak joan eta urteak etorri, eta gure neska-mutilla gero eta maiteminduagoak egozan.

Xantik lan egiten eban meatzean arri-zulatzaileko lana bear eben eta bere aitagandik ikasitako bearra eskeiniz, erreztasunez lortu eban lana. Xantiren aitari silikosiaren gaixotasunak eroan eutson beste mundura. Langille trebea zan bere lanean, errian ere bere semeagaz sarritan leiaketak antolatzen ebazan eta orregaitik Xanti, arri-zulatzaile trebea egin zan, orrez gañera zuloetan lergalluak sartzen be irakatsi eutson. Bear orreei esker, soldata aunditzea lortu eban eta bi edo iru urtetan eskontzarako bear eben dirua batuko eban.

Batzutan nekez bestetan zorionez baña beti ilusioaz beterik denborea igaroz joian eta azkenez eskontzeko antolatutako urtea eldu jaken. Udaberrian egozan eta eskontza garagarillerako ogeitabian, Magdalena egunean izango zan. Olantxe eskatu eutson Luciak Xantiri elkar-ezagututako eguna ospatu guraz.

Udaberriko larunbata aretan Lucia eta Xantiren familiak alkarregaz afaltzeko geratu ziran. Meatzarientzat lan-eguna izan arren Lucia, pozez beterik, danontzako afari ederra prestatzen arduratu zan. Ordua gero eta urbillago egoan eta bera gero eta zoriontsuago.

Dana prest, maia txukunduta loreontzi bat mai erdi-erdian eta, bat-batean zoritxarrez neskek ondo ezagutzen eban eztanda entzun zan, gero, meatzetako turuta... Eta orixe zan Luciaren bizitzan azken zorioneko eguna.



OTOIZKA

(Doiñua: Markesaren alaba)

- 1.- Otoizka asia nago
lurretik zerura,
kristau on batek egin
lezaken modura;
derriorrean goaz
eriotz ordura,
izango ote degu
zeru eder ura?
- 2.-Jaio orduko izan
gendun bataioa,
orrekin garbitu zan
pekatun jaioa;
baiña okerrak badu
beti jarioa,
garutz batean
dago erremedioa.
- 3.-Begiratu dezagun
Adan da Ebaren,
nola pekatariak
guztiok geraden;
Paradiso on baten
jarriak ziraden,
pekatu egin zuten
da galdu giñaden.
- 4.- Gizakia pekatuz
dago gizendua,
eskerrak Jaungoikoa
zala gizondua;
fedea dadukagu
naiko atzendua,
okertu giñan eta
ezin züzendua.
- 5.- Jainkoaren Semea
zerutik jetxi zan,
gure salbazioa.
Belenen asi zan;
guri erakutsitzen
Jesús ibilli zan,
danok zeruratzeko
gurutzean il zan.
- 6.- Sarri gabiltza noski
nola edo ala,
Ikusiz etsaiak´e
ugaldu dirala;
sinistu Jaungoikoa
oso ona dala,
poz bat degu Bere seme,
alabak gerala.



7.- “Euskaldun fededun”

zan gure ezaera,
baiña aldatua da
gendun izaera;
dirua jarri zaigu
Jalnkoan parera,
danak emen utzita
joan bearren gera.

8.- Arrokeriz indartu

gera gurekiko,
berdin-berdin bertako
edo urrutlko;
otoitz egin dezagun
eta belauniko,
arman bidez ez degu
pakea ekarriko

9.- Eguzki ta illargi

zeru aldetikan,
eta millaka izar
beren bidetikan;
milloika urtez dabiltz
utsik gaberikan,
or badago norbaite
gure gaiñetikan.

10.- Pozak gutxitu dira,

negarrak ugaldtu,
geroko etorkizunik
munduak bai al du?
Etsairikan baletor
al bada bialdu,
Kristau-itxaropenlk
ez dezagun galdu.


11.- Sarri mundu onetan

ez degu pozikan,
gure itxaropenak
askotan utsikan;
arantzarikan gabe
ez da larrositan,
arrokeriak berriz
ez du otoitzikan.

12.-Gaurko aurrerapenik

ez gendun lenago,
asko igoagatik
nai degu gorago;
aurrekoak oroituz
ni galdezka nago,
ez ote ziran bizi
zoriontsuago?

Txomin Garmendia



Agustin Kardaberaz

Zenon Uriguen, Pasiotarra



Jatorria:

Hernani errian jaioa dogu 1703 urtean. Bere gurasoen eta sendiaren barririk lortu eziñik ibilli gara. Baña Agustinen izaera eta biziera ezaguturik esan daikegu, garai aretan bere familia ona eta jatorra zala baita be, ikasbide eta jarraibide fede eta bizieran. Eta Agustin seme ona ta leiala da gurasoen irudira. Gaur egun familia beeraldi illun baten sartuta dago. Gizonak gauza ederrik asko egin arren bearrezkoena egin barik ixten dau, au da: gizongintza, gaztearen eziketa. Nortasun aberats eta jator baten jaun ta jabe izateko. Egiaz au da gure Agustinek ikusi eta bizi ebana bere etxe eta familian. "Euskal leen gaia, gizakia" (Barandiaran)

Gazte baten amets goragarriak:

Gaztaroan ikasteak egiteko buruaz ta borondateaz egiñalak egin bear dira etorkizun oparoa egin eta eragiteko. Agustin Kardaberaz gazte ameslaria da etorkizunari begira. Baserria utzirik Donostiara doa gramatika ikasteak egiteko Jesuiten ikastetxean. Geroago Iruñara filosofia ikastera, emendik Valladolid urira jurisprudenzian jakitun izateko. Uri onetan artzen dau erabaki zintzoa Jesuita izan, Teolojia ikasi eta apaiza izango da 1729 an. Gazte jator onek bete ditu bere amets goragarriak, batez be, kristau fedean eta bizibidean. Bere burua goi-mailako ikasteakin jantzita Bilbo´ra dator.

Kristoren Barri-Onaren mezularia:

Bilbon emongo dautso asiera, bero ta gartsua, Kristoren mixiolari izateari. Bizkaiko errietan Jesusen Biotzaren eraspenna ta jaiera euskeraz zabaltzen dau. Nundik datorkio Jesusen biotzaren jaiera? Leengo urteetan Margarita Maria de Alakoke, biotz-beroz otoitzean ari dala, Jesusen Biotzak emoten dautso zeruko grazia ta deia. "Ara emen ainbeste maite izan dauan Biotza, zabaldu egizu inguru guztietan

EUSQUERAREN
BERRI ONAC.
 ETA ONDO ESCRIBITCECO,
 ondo iracurteco, ta ondo itzegui-
 teco Erreglac:

CURA JAUN,
 TA ESCOLA MAISU CELOSOAI
 Jesuf-en Compañiaco Aita Agustín Car-
 daberaz ee eisqueñitcen, ta dedicatcen
 dieztenac.



PEAR DAN BEZALA.
 Inuecan Librugulle **ANTONIO CASTI-**
LLA-ren echean.



IRACURLEARI

BERRI

ONAC.



RROMAN, ERRIA-
 ren errenta andi, eta
 fama are andiagoa-
 requin, ondo itze-
 guten icasteco, edo
 Eloquentiaren Esco-
 lac aurreneco idiqui
 cituenac, MARCO
 FABIO QUINTI-
 LIANO izanzan. Au


Autore andi afoc diotenez, jaiotzaz, edo be-
 A z re

biotz onen errukia ta maitasuna” Margarita asiko da, su ta gar, biotz orren jaiera nun nai zabaltzen. Claudio de la Colom-bier, aita Jesuitak laguntza eragin-korra emoten dautso Kristoren deia betetzeko. Euskal errian aita Karda-beraz izan zan Jesusen Biotzaren lenengo mezularia. Eta, fede bi-ziatz, Jesusen Biotzaren jaiera erein, eragin eta ospatzen dau. Zeruko ekinbide onetan zintzo ta tinko ja-rraituko dau.

Zer geiago? Aita Agustinek Oñatiko Ikastetxe Nagusian teologia erakutsi eban arek eta bere atepak itxi arte. Azkenengo urteetan ekin ta ekin diardu euskerazko liburuxkak idazten. Bere elburua da Kristoren eta kristau bi-zitzaren barri ona emon eta zabaltzea. Kris-tau liburuxkak, euskeraz idatziak, 14 dira. Azken egunak Loiolan bizirik 1770 urtean il zan 67 urtekin. “Gazte, iñork etzaitu aundi egingo, zeu izango zara zure aun-ditasunaren egille, jaun ta jabe. Jo ta ke, ekin”.



EUSKALERRIAREN EDESTIA-I (VI.)



2. ZATIAN.

Sarreratik datorrena.


**Omosapiensen bizitzan,
antolakuntzaren
arlo-ezbardiñak.**

Omosapiensen giza Europan sartu eta ugaritzen asi zanetik: senditasuna, izkuntza, legeak, erlijioa eta gizarte artean ardurazko artuemonak.

Europan sartuta eta euren ikaskizunezko azturaren orduko otz edo bizitzaren garrazkeritik babesteko, ainbat laguntzazko begipe edo norberen oarmenezko zentzuaren maitasunetik, leiñuzko maitasunera aldatu ziran, gure leentasunak premiazkoak ziralako.

Senidetasuna.

Berezkotasun onen aurrean, gure arritasun edo ustekabeko agerkeria itaun ugarikoa izan zan lez, estutasun orreitan sartuta, laguntza be bear gendun, eta gaiaren mukulu txikerrenak gorputza artzeko daukien *erakarrezko indarraren* antzera, guk *maitasu-*



nezkoak biurtuta, beren bitartez asi giñan gure ordezko zeregiñak sendotzen, eta egin bear genduzan antolaketak, maitasun orren bereizgarritasunetan egokituten.

Leiñua agertzen da leen, eta bere antolaketatik asi giñan jakiturera zabaltzen, oraiñ argituko doguzan arloen ulermeneko serbitzura.

Oar txiki bat emen.

Omosapiensek leenengo euskal ots edo berba egiten ebala esaten dodanean, bardin esan neike sumer izkuntzaren leenengo ots, edo orduko beste leen izkuntza bategaitik, esan orregaz, oitura bardiñeko oiñarritik eta urruntasunagaitik beartuta, asieran sortu ziran naste bako leen izkuntzagaitik berba egiten dodalako.



Ortik aurrera, beste gauza bat dira, nai Europaren Ekialdean, Asian eta Afrikan Paleolitiko-Neolitiko ostean, leiñu edo errigizartetan menpekotasunezko gudan asita, sortu ziran nastezko izkuntzak.

Leenengokoak, oitura bateko oiñarritik bereztasunaren azturan, sortutako izkuntz garbiko jendekuntzazkoak diralako.

Bigarrenak, Asia-txikitik menpetasunezko guda-legez asi ondoren, sortu ziran mintzadar edo izkuntzazko naas-kumeak, gero, erromatarren latinkumeak sortu ziran lez.

Izkuntza.

Afrikatik mugi aldiak asi ziranean, jakintzaren arloetan, euskeraz edo alako oiñarrizko izkuntz, ots edo lenengo berba ta ekanduzko oitura bardiñ batetik zabaldu ziran zalantzarik bage, eta milla urte asko ondoren jakintzazko azturan, leiñuak auzotasunaren lurraldeko antolamenduetan kokatuta geratu ziran, bakoitza bere demokrazizko batzar nagusiaren babespean.

Ortik asi giñan sendiko alkartasunetan babesten, eta gero auzotasunezko lur leiñuetan, Afrika, Europa ta Asiako lurralde guzti orreik egokitzen.

Milla urte askotako aukera orreitan lortu eben orduko leiñuek, gaur Euskalerrriak oraindiño euskal arbasoengandik daukazan nortasunezko izkuntz ta oitura demokratikoak, gure *lege zaarretan* daukaguzanen antzera.

Izkuntza arloetan baiña, orduko lurralde orreik oso zabalak ziralako, izkuntzaren jakintzazko aztura arloan ezin eben izkuntz edo gaztelu bat bakarrik egin, eta orko bidetik asi ziran berexkatzen, oiñarri bateko ots-itz'aren erpetik, izkuntz desberdiñetan.

Alan da guzti, nai eta gizarentzat ekanduzko zeregiñetan, oiturazko oiñarri ta izkuntz batekoak izanda be, mundu zabal areitan, mendi, aran, euri, izotz, egugiro, lurraren otz-berotasun, abeldi ta lore di, bizi ekintzazko ardura bidez, gauza guztiak bereziki izendatzen egiten ebazanean, zentzuzko izenetan lurralde bakoitzak bere berezki'ko berdiñezaren ikutuagaz agertzen ziran.

Ez duana esangura, euren urrunkeran guztiz banakatu egin zirala, euren leiñutasunezko auzotasunaren urbiltasunean, euki ebazan arreman edo alkar ikusteak, zaindu egiten ebazalako, jakintzazko zentzuetan alkartzeko.

Ortik ulertzen da, zelan Euskalerrriko izkuntza danona izanda, leiñu bakoitzak bere bakardadearen bereiztanunezko ikutuagaz, izkuntzan desberdintasunezko itxura baten agertzen zirala, gaur Bizkaia, Gipuzkoa,

Araba, Nafarroa, Benafarroa Laburdi ta Zuberoaren antzera, edo lenauko izenetatik aipatuz: Kantaurikoak, Autrigoiak, Karistioak, Barduloak, Taberlli, Konueni, Baskoiak, Beroiak, Kelt-Iberoak(?), Edetanoak, Ilergeteak ta abar, desberdintasun orreik nabarmenekuak izanda, lurraren urruntasun ta euren mendizti edo ta zelaikadatan bizi izateak, emoten eutsoezelako desberdintasun edo bereizkeri orreik.

Danon jakintzarako zeregiñezko ekintzan, gaztelu eder bat egiten egon ba ziranen antzera, bear genduzan gauzei, ondo atondutako izenak ipini eutsezan. Eta izen bakoitza, itz-guztien arteko esangurean ezagutu zedin, bere bereiztasun ederrenean.

Orduko jakintsuak, goi-maillako arduran eta lojikazko aztura-bidean zentzunduta, itzen arteko orekak zaintzen alegindu ziran, ondo zaindutako ekanduagaz.

Eta berbak, txarrera eta ontzarako esangurak euki eben benetazko zer-ikusia, gure arteko ulermenera argi ta garbi agertu zitezten, eder-lanean landutako itzakaz eraiki eben euskerazko gaztelu eder orregaz, Euskal zentzu aundi eta irudimenaren argitasunezko berba ederrenen artean ezarri eben Europako mendebal guztia.

Bereztasunezko bizitza baten, Demokraziaren arloak ondo atonduteko, gauza eder bi ikasi ebezan azturazko iker bidetik lan eginda: Gure zeregiñezko arduraren *egi* edo ta *legezko ziurtasunak*, bereztasunezko legeditik zentzun eta zeaztasun aundiz bakanduta eratu egin bear doguzela, *itzak* euren ekanduz-

ko lekuetan, *egiz* eta ondo *adiñonduta*⁽¹⁾ ezarri dagiezan.

Eta bigarrena: euskerearen izkuntzagaz gaztelu eder-ori egiteko, aditzak osagarritzko itzak diran lez, guk be, Izadi onetan danon eta gauza guztien antzera bereztasunezko gai-lege bakarra dan orren barruan erperatuta egoteagaitik, *osagarritzkoak*⁽²⁾ *garela* ikasi gendun.

Eta zentzun aundiz artu eben bide ori, zuzentasunen ardurean bide onena eta bakarra dalako.

Begitu, *askatasunezko demokrazi arloan, zelako gauza ederra egin eben.*


Izkuntzari begira, jakintsuak esaten dabena.

Gaur, jakintsuen esanetatik dakigu Omosapiens edo kromañoi denboran, euren arteko ulermenean egokitze-ko, sorkuntzazko asieratik jakintzazko azturan oituratzeko euki eben izkuntza, *len ereduko euskerea* zala Afrikan, eta Atlant Itsasotik Indiaraiño.

Iñorentzat ez leuke izan bear sinis-gogorkeri bat, Omosapiens edo euskal kromañoi giza izan zalako zabaldu zana. Besterik, egoan ba?

Alan dala esan leike: jakintsuen ikerkuntza bidetik, dagozan izkuntz guztien sorkuntza ta senitasunak jakinda zein direzan, *euskerea*, asikoen sorkuntza baiño askoz aurreragoakoa izanda, galdu egiten jakiela, eta orregaitik, beste izkuntzetan bere oiñarrizko itzak euki bear, *euskerea* Omosapiens'en leen ozenezko itz edo abots'etik datorrena dalako.

(1) *Adiñonduta* = *acomodarse, acoplarse, adecuarse*. (2) *Osagarriak* = *complementarios*.





Afrika, Europa ta Asian orregaitik, *euskerea*, ainbeste argitu leiken tokiaren izenetan aurkitzen da: Aran, Ur, Ibar ta abar asko.

Eta mendi toki, lur, ura, aize, eta eurak bi-ziaren ulermenean sartzeko, izendu bear ebezan gauzetan agertzen da.

Emen, Euskerearen ziurtasuna zeatzuteko esan bear dogu, goian, Felix Zubiaga ta Legarretak maixutasunezko adierazkizunean esaten dauana: *izkin bateraiño aztertu egiten dauan mintzoera edo izkuntza, jatorriz sortutako izkuntza dala*.

Izkin bateraiño eltzea, eredu nagusien⁽¹⁾ ozenezko iturria dalako, berbearen mintzo edo abots sorkuntzan”.

Eta *euskerea* al dalako izkin bakarreraíño eldu leikena, orain ezin da esan alderatzaileak⁽²⁾ esaten daben antzera: *euskerea jatorriz, ezagutzen ez dan mintzoera bat dala*. Bere iza-

tean, bera dalako berezko aitortzaille, oguzpeneko mintzoeraren⁽³⁾ jaiokeran.

Gaur *euskerea* orregaitik, mintzoeraren jatorrizko itz bakar bidetik eta onen eredu nagusiko leen analoji arauz, beren jaiokera argitzen dauan izkuntz-bakarra da.

Zer izango ote da Euskerea, Euskaldunentzat?

Jainkoa´ri begira milla urte askoren ikerpeneko atun-bidean⁽⁴⁾ edo eta aztura bidetik⁽⁵⁾, ondo erindu ta biribildutako lanean, eta itzak euren lekuetan ondo aokatuta bete-betean egokituta geratu zitezen, gure *arbasoak, euskera*zko *gaztelu eder-au egin eben, eta berezitasunezko legean beragaz bizitz-oneri*, al eben *adierazpen* ederrena emon eutsoen.

Ez ziran txantxetan ibili zentzun aundiko demokratak izanda, laztasun⁽⁶⁾ eta zorroztasun⁽⁷⁾ aundikoak izan ziralako.

(1) Ereditu nagusien = arquetipos. (2) Alderatzaileak = comparatistas. (3) Oguzpeneko mintzoera = pronunciación articulada. (4) Atun-bidea = camino del conocimiento práctico, procedimiento empírico. (5) Aztura bide tik = crecimiento en el conocimiento. (6) Lasztasun = aspereza, desabrimiento severidad. (7) Zorroztasun = agudeza de instrumentos, agudeza de la punta, austeridad.

Euskal itzazko esaerak, sorburuzko itzekaz osotutako almenean eginda da gozelako, esangura dan irudizko toki ber beran kokatzen gaitu.

Zergaitik?: Irudizko neurri ori, ia izkuntz gitxi baiño ez daukienak diralako, Euskerea bakarra dala, ez esateagaitik.

Alde batetik: Euskalerrria, lenago askoz aundiagoa izan zanetik: Atlant itsasotik Alemaniaren erdiraiño eta Eskoziatik Kadizeraiño zabalatasunean, gure bizitzarako agertzen diran zeru, laino, euri, aize, lur, ur, itsaso, ibai ta mendiak daukiezan era guztiaren aldakuntzazko irudietan eta berton bizitzak agertzen eban landaretasunezko ezberdintasun guztia, bai aizetan, lur eta ur artean dabil-tzan izaki bizitzak, gure arbasoek zentzu aundi-enean izendatu ebezalako.

Bestetik: Gure arbasoak, Euskal-leiño edo errigizarteko arremantetan antolatze-ko *Lots aundi ta begirunezko*⁽¹⁾ itzekaz oituratu ziralako.


Eta Jainkoak bereztasun oneri erperatutako legeak, lots andiko kontuan artu ebezalako, *ekanduaren egizko ardatz nagusienetan* kokatuta geratu ziran.

Egiaren azturazko ekintza orreik, berez bideratu ebazan gizadiaren esku-bideak lots andiz zaintzera, eta egokitasunezko bide eder orreititik *benetako demokrazi on baten*, danon *askatasunak begirunez* artzen diran *jendekuntzazko*⁽²⁾ *erria izatera*, gure Lege Zarrak erakusten dauan lez.

Orregaitik da Euskalerrria, European, *oraindiño Indoeuropeizatuta-barik gertzen dan azken erria*.

Atutxa'tar Paul

Zornotzan 2.017ko urtean Urrillaren 16an





(1) Begirunezko = respeto, consideraciòn.

(2) Jendekuntzazko = civilizaciòn.

Euskaldun barrientzat ikasten

Zazpi utsak



ARPIDETZAKO TXARTELA

ZER aldizkaria artu gura dot eta bialdu egidazue zuzenbide onetara:

..... tar


..... kalean (auzoan..... zenbakian

..... errian, errialdean (probintzian)

Arpidetza ordaintzeko (ogeitamabost euro) kontu onetan:

Euskerazaleak, Bilbao bizkaia kutxa : ES28 2095 0000 74 2000089615 zenbakidun diru-kontura.

ZABALDU DAGIZUN **"ZER"**. Arpidedun bakoitxak billatu begi beste bat!



**lxil ixilik dago, kaia barrenian
untzi xuri polit bat uraren gainean. (bis)**

**Goizeko ordu bietan esnatutzen gira
arrantzaliarekin joateko urrutira.**

**Pasatzen nintzanean zure leihopetik
negarrak irteten dit begi bietatik (bis)**

Zergaitik (5 aldiz) negar egin?

Zeruan izarrak dagoz itsaso aldetik. (bis)